

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

#### **Kirolari federatu ez-profesionalek kirol jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdiaren laburpena**

BDNS (Identif.): 887087.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdns-trans/GE/es/convocatoria/887087>.

#### **KIROLARI FEDERATU EZ-PROFESIONALEK KIROL JARDUERAK EGITEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN LABURPENA**

Alkatearen 2026ko otsailaren 12ko 35/2026 Ebazpena, zeinaren bidez deialdia egiten baita kirolari federatu ez-profesionalek kirol jarduerak egiteko norgehiagoka bidezko 2025-2026ko dirulaguntzetarako

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: [www.infosubvenciones.es](http://www.infosubvenciones.es).

#### **Lehenengoa.- Onuradunak**

Onuradun izango dira banakako kirolariak, federatuak eta ez-profesionalak, probintziako, autonomia erkidegoko, estatuko edo nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzeagatik.

#### **Bigarrena.- Xedea**

Deialdiaren xedea da udalerrian erroldatuta dauden eta kirol federatu ez-profesionala egiten duten pertsonen dirulaguntzak ematea probintziako, autonomia erkidegoko, estatuko edo nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte har dezaten.

Dirulaguntza jaso ahal izango da legez onartutako edozein kiroletako lehiaketetan parte hartzeko eta kirol materiala erosteko.

#### **Hirugarrena.- Oinarri arautzaileak**

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arauak Udaltzaren 2023ko otsailaren 27ko bilkuran onetsi ziren eta apirilaren 17ko ALHAOn argitaratu ziren (45/2023 zenbakia).

#### **Laugarrena.- Laguntzaren zenbatekoa**

Kirol materialerako: gastuaren % 50, eta gehienez ere 100,00 euro.

Lehiaketetan parte hartzeko:

Probintziako lehiaketak: 50,00 euro.

Probintziako eta Euskadiko lehiaketak: 120,00 euro.

Probintziako, Euskadiko eta estatuko lehiaketak: 200,00 euro.

Estatuko eta nazioarteko txapelketak: 230,00.

Kirol materiala eskuratzeko 100,00 euroko gehieneko muga ez da aplikatuko dagozkion esleipenak egin ondoren aurrekontu partida agortzen ez bada. Kasu horretan, geratzen den kopurua modu proportzionalan banatuko da baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, baina ez da gaindituko egindako gastuaren % 100.

Aitzitik, esleitutako kreditua ez bada nahikoa aurkeztutako eskaera guztiei erantzuteko, kirol materiala eskuratzeko dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da, eskaera guztiei erantzun ahal izateko.

**Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak oinarrien eranskinean dagoen ereduari egin behar dira, eta oinarrietan jasotako dokumentazioa ere aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epea 2026ko irailaren 30ean bukatuko da.

**Seigarrena.- Eskaerari erantsi beharreko agiriak**

Federazio lizentzia.

Eskatutako dirulaguntzaren xede den kirol materialeko gastuari dagokion jatorrizko faktura, bai eta faktura hori ordaindu izanaren ordainagiria ere. Eskudirutan ordainduz gero, jaulkitzaileak faktura zigilatu beharko du eta eskudirutan ordaindu dela adierazi.

Egutegia eta urtean zehar probetan parte hartu izanaren egiaztagiria eta zerrenda zehatza, sinatuta, eta probok probintziakoak, Euskadikoak, estatukoak edo nazioartekoak diren adierazita.

Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, eta titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

Durana, 2026ko otsailaren 12a

*Alkatea*

*M<sup>a</sup> BLANCA ANTÉPARA URIBE*